



FERNANDO PRADO AYUSO, CMF

DONOSTIAKO GOTZAINA  
OBISPO DE SAN SEBASTIÁN

## «Altxa begirada!»

Gipuzkoan erromes den Jainkoaren Herriari Pastoral gutuna  
Leon XIV.a Aita Santuaren bisita dela eta  
(Madril, Bartzelona, Kanariar Uharteak, 2026ko ekainak 6-12)

Eliztar maiteok:

Pozgarria da niretzat Leon XIV.a Aita Santuaren bisita dela eta hitz hauek zuei zuzentzea. Aita Santuaren bidaia apostolikoa Madrilera, Bartzelonara eta Kanariar Uharteetara izango bada ere, garrantzitsua da kontuan izatea bidaia hau ez da goela leku horietan gertutik jarraituko duten haiei bakarrik zuzendua. Aita Santuak batzuek bisitatuko dituela pentsatu badaiteke ere, guztioi egiten digu bisita. Baita guri ere. Poz eta nekeen artean Gipuzkoan erromes den, bilaketan ari den, fede zintzoa duen eta zerbitzeko gogoz den Donostiako elizbarrutia ere bisitatuko du.

Ororen gainetik, bisita hau opari bat dela adierazi nahi dizuet. Jainkoak gure lurraldean erromes den Elizari eskainitako benetako opari bat. Ez da gertakari garrantzitsu bat soilik. Ez da data berezi bat, besterik gabe. Graziako gertakari bat da. Dei bat, gure barnean Jaunaren bisita jasotzeko aukera bat. Izan ere, batzuetan, oharkabean, bizitza, presaz, nekez eta kezkaz betetzen zaigu, eta fedea ere indarra, freskotasuna eta sakontasuna galdu lezake. Beraz, Pedroren ondorengo gurekin elkartzera datorrenean, zerbait esnatzen da gure barruan: Elizak bere bidea ez duela bakardadean egiten, Jaunak eusten duela eta Espiritu Santuak behin eta berriz bide berriak zabaltzen dizkionaren oroimen bizia.

«Altxa begirada!», bisita honetako leloa, benetan da ederra eta aproposa. Badu Ebanjelioaren deitik zerbait, baita une zehatz hau argitzeko Jainkoak eskainitako hitzetik eta arnasberritzerako gonbidapenetik ere. Agian begirada lurrean iltzaturata bizi gara: epe laburreko lehentasunetaz arduratuta, zailtasunetan harrapatuta, ikusten eta entzuten dugun hamaiketik minduta, tirabira, zatiketa eta

ziurgabetasunez nekatuta. Falta zaigunari, huts egiten digunari, mintzen gaituenari eta kezkatzen gaituenari gehiegi begiratzen diogu. Eta horrela, oharkabean, pixkanaka bihotza uzkurtu egiten zaigu eta bizitzak ito egiten gaitu.

Horregatik, gonbidapen hori beti, berritasunez entzun behar dugu: «Altxa begirada!». Bai, altxa ditzagun begiak. Ez gaitezen bizi orainaren preso. Ez gaitzala inoiz etsipenak garaitu. Ez dezagula pentsa gaur atsekabetzen eta tristetzen gaituena erabakiorra eta behin betikoa izango denik. Begirada altxatzeak barru-barrutik berriz ere sakonki arnasa hartzea esan nahi du. Zerumugak, horizonteak, berreskuratzea da. Jainkoa beti Jainko dela oroitzea, Kristo berpiztua bizi dela, ez duela inoiz bere herria eskutik uzten, eta bere graziak, isilean, historian parte hartzen duela oroitzea, baita gure ezinen erdian ere.

Begirada altxatzea, ororen gaindik, Kristo berriz ere erdigunean jartzea da. Ez da ideia abstraktu bat aitortzea, ez da ohitura erlijioso soil bat ezagutzea, bizi den Jesu Kristo erdigunean jartzea da. Gure izatea partekatzea etorria den huraxe bera, gure arteko egin, gurekin eta gugatik bidea egin duena. Aitak goratu eta aintzaz bete duen huraxe bera. Gora begiratzeak ez gaitu lurretik urruntzen: Bera benetan zein den eta bere maitasunaren argitan gu nor garen ikusten laguntzen digu.

Begirada altxatzea Elizaren edertasunaz birjabetzea ere bada. Batzuetan bere mugen, ahultasunen eta arazoaren ikuspuntutik bakarrik begiratzen diogu. Baina Eliza hori guztia baino askoz gehiago da. Eliza, Jainkoaren herria, Jaunak deitu eta bere baitan bildua da. Anai-arreben eta elkarten arteko komunio bizia da. Mundu osoan zabaldu dagoen familia. Eta tokiko Eliza bakoitzean gorputzen da egiaz, bakarra, santua, katolikoa eta apostolikoa den Eliza. Eta horregatik du Aita Santuaren bisitak horrenbesteko sakontasuna: oroitarazten digu ez garela errealitate isolatu eta buru aski baten parte. Ez gara bere baitan itxita biziraun dezakeen talde bateko kide. Pedrokekin eta haren bitartez eliza guztiekin dugun komunioari esker gara Eliza. Pedrok gaur Leon du izena. Erromako gotzaina da, maitasunean beste eliza guztien buru egiten duen Eliz Amarena. Komunio edo elkartasun horrek ezin du sentimendu huts bat izan. Errealitate ikusgarri, zehatz eta sakramental bat da. Eta berau pozez bizitza gure nortasunaren oinarri sendoenetakoa da. Ze ederra izango den Pedrok, Leonen ahoz zuzenduko dizkigun hitzak entzutea!

Leon XIV.a Aita Santuaren bisitaldia lagungarri gertatuko zaigu ulertzeko, lurralde berean erromes diren Elizak bidea, bereizmena, zerbitzua eta ebanjelizatzearen erronkei elkarrekin aurre egitera deituak daudela. Elizbarruti bat, eta, hau bezala, edozein kristau elkarte, ezin daiteke beretzat bakarrik bizi. Denok gaude deituak komuniora eta erantzunkidetasunera. Honetaz ohartzea eta kontuan hartzea behar-beharrezkoa da. Aita Santuaren bisitaldi hau aukera ederra gerta dakiguke

eliz-kontzientzia zabalago, katolikoago, eskertuago eta senitartekoago bat izateko.

Dena den, begirada altxatzea ez da komuniora mugatzen. Misioa ere ezinbestekoa da. Aita Santua gu gure fedean berretsi eta sendotzera dator, baina ez gero ondoren gure baitan itxirik gelditu gaitzen, benetan esnatu gaitzen baizik. Pazko gertakaritik eta misio eginkizunetik jaio zen Eliza. Ebanjelizatzeke bizi da Eliza, munduan Ebanjelioaren Berri Ona eta poza zabaltzeko. Mundu horren erdian Kristo aitortzeko, apaltasunez, gertutasunez, egiaz eta maitasunez.

Gure artean bultzada ebanjelizatzaile hori berritzeko dei probidentzial bat ere izan daiteke bisitaldi hau. Ez dira garai errazak gure fedearantz. Axolagabekeria, helburu eta helmuga garbirik ez ikustea, nekea eta barne haustura nagusitzen zaizkigu askotan. Jende asko bizi da Jainkoarekiko axolagabekeria osoan. Beste batzuek nahiko lukete sinestun izan, baina ez dute horretarako biderik aurkitzen. Badira zentzu bila dabilzan gazteak, zailtasunean eta probaldian aurkitzen diren familiak, bakardadea bizi duten adinekoak, duintasuna eta eguneroko ogia ukatzen zaien behartsuak, beren bihotzean zauri isilak dituzten gizon-emakume ugari. Elizak ezin du horren guztiaren aurrean atzera egin. Kanpora irtetera deitua dago, laguntzera eta lagun izatera, entzutera, bideak zabaltzera eta itxaropena ereitera.

Horregatik, bisitaldi honek, zirrara eta poza sortzeaz gain, hausnarketarako eta barne-azterketarako bide izan behar du. Nora begira bizi gara? Zerk betetzen du gure bihotza? Zer helburu edo jomuga eskaintzen ditugu? Itxaropen sakon baten lekuko gara edo nekea erakutsi eta zabaltzen dugu? Gonbidatzen, onartzen, laguntzen eta Ebanjelioak dakarren poza eskaintzen duen Eliza bat al gara? Ez al gaitu garaitu egunerokotasunak, etengabeko kexak eta etsipenezko jarrerak?

Leon XIV.a Aita Santua bere ministeritzaren hasieratik nabarmendu da gaur bereziki premiazko bihurtu diren bi gaietan, hala nola Elizaren batasuna eta munduko bakea. Zinez beharrezkoak zaizkigu biak. Batasuna behar dugu, aniztasunari uko egin gabe; komunioa, ez liskarra; sentsibilitate, kutsu eta ezberdintasun ororen gaintetik elkar anai-arrebatzat onartzeko gaitasuna. Eta bakea behar dugu. Egiazko bakea. Bihotzeko bakea. Bakea herrien eta nazioen artean. Bakea familietan. Bakea gure harremanetan. Bakea gizartean. Ez indarren berdintasunetik sortutako bakea, Jainkoagandik datorrena baizik. Begirada altxatzea, gutako bakoitza «bakearen artisau» izatera, ekintza eta jarrera txikienetik «armagabetu eta armagabetzaile» den bake baten aldeko konpromezura deituta gaudela ikustea da.

Bizi dugun garai honetan biolentzia, mesfidantza eta polarizazioa erraz ugaltzen ari direla dirudi. Horregatik bihurtzen da hain premiazko Aita Santuak, zalantzarik gabe, bihotzean eta ezpainetan ekarriko digun mezua sakontasunez entzutea:

«Bakea zuekin!». Ez azaleko bakea, ez xaloa den bakea, Kristok dakarren bakea baizik: barru-barrutik armagabetzen gaituen bakea, adiskidetzen duena, eusten duena, bideak zabaltzen dituen, makurtzen eta baztertzen ez duena.

Eta bakearekin batera, xalotasuna eta konfiantza berreskuratzeko dei bat luzatzen zaigu. Ziurrenik, mesfidantza da bizi dugun garai honetako gaitzik sakonenetako: elkarrekiko mesfidantza, gizartean hedaturiko mesfidantza, etorkizunarekiko mesfidantza, eta baita, agian, barru-barruko mesfidantza. Kosta egiten zaigu bihotz garbi eta apal batekin sinestea, besteengan sinestea, denok elkarlanean aurrera atera dezakegun horretan eta eraiki dezakegun guztian sinestea. Aita Santuaren bisitaldia lagungarri gerta dakiguke hain zuzen egia hau berriz argitara ateratzeko: «gu» sendoago eta sakonago bat osatzera deituak gaudela, nahiz eta elkartasun hau modu irekian bizi, inor ez baita bakarrik salbatzen, guztion onak gure konpromezua merezi baitu, harremanak eta lokarriak behar baititu gizarteak, erantzunkidetasuna eta norberaren interesetik haratago begiratzen dakien bihotza.

Horregatik guztiagatik, bisita hau jasotzeko prestaketa espirituala egitera gonbidatzen zaituztet. Prestatu dezagun otoitz apal eta zintzoz. Egin dezagun otoitz Leon XIV.a Aita Santuaren alde, beraren, bere ministeritzaren, sendotasunaren eta intentzioen alde. Egin dezagun otoitz bidaia apostoliko honen fruitu espiritualen eta pastoralen alde. Egin dezagun otoitz bidaia prestatu dutenen alde. Egin dezagun otoitz gure elizbarrutiaren eta gure kristauen alde, gertakari honek dakarrena bihotz zabaltasunez, apaltasunez eta prestasunez onartzen jakin dezagun.

Prestatu dezagun bihotz-berritze jarrera zintzo batekin. Baliteke, hau, une egokia izatea gure buruari egiaz galdetzeko: nora nago begira? Zerk galarazten dit begirada altxatzea? Zer beldur, zer zauri, zer neke, zer pekatuk lotzen nau? Zertara gonbidatzen nau gaur Jaunak? Badira, bihotza adi ez dagoenean oharkabean igarotzen diren Jainkoaren bisitak. Eta aldiz, adi eta abegi onez onartzen ditugunean arrasto sakona uzten dutenak.

Presta dezagun bisita hau elkarte sinestun baten jarrera hartuz. Ederra izango litzateke gure parroketan, elkarteetan, ikastetxeetan eta familietan, otoitzerako, katekesirako, gurtzarako eta hausnarketarako uneak hartuko bagenitu, bisita hau eliz senez bizi ahal izateko. Inork ez dezala pentsatu hau beste batzuentzat egina denik. Ez dadila inor bazterretik begira gelditu. Denoi luzatzen zaigu gonbidapena. Denok parte hartu dezakegu espirituan. Denok jaso dezakegu fruitu oparoa.

Ez dezagun ahaztu ezta ere, begirada altxatzeak ez gaituela lurretik eta gure anai-arrebengandik urruntzen. Jainkoari egiaz begiratzen dionak lagun hurkoarekiko duen begirada hobetzen du. Besteen sufrimendua antzematen ikasten du. Errukiz makurtzen da harengana. Zerbitzua zer den ikasten du. Eukaristiak, Elizaren

bihotzak, hori bera erakusten digu: Kristo bera ematen zaigu, guk gure burua ematen ikas dezagun. Ez dago jomugatzat maitasun zehatzera itzultzen ez den goi begiradarik. Kontenplazioa ere ezin daiteke egiazkoa izan bereziki pobre, ahul, sufritzen ari den, migratzaile, bakarrik eta bazterturik aurkitzen denarekiko maitasun eraginkorrik ez badu.

Eliztar maiteak: Altxatu dezagun begirada! Altxa ditzagun begiak Kristogana, bera baita gure bakea. Altxa ditzagun begiak gure etxea eta gure ama dugun Elizarengana. Altxa ditzagun begiak gure anai-arrebengana, era berezian kontsolamendu eta gertutasun beharrea aurkitzen direnengana. Altxa ditzagun begiak gurea den mundu honengana, itxaropenaren testiguen beharrea baitago. Altxa dezagun gure begirada fedez, prestasunez eta pozez, Pedroren ondorengoaren bisita jasoko dugun honetan.

Leon XIV.a Aita Santuak Madril, Bartzelona eta Kanariar Uharteetara hurbilduz egingo duen bidaia apostoliko honek sortu dezala, Gipuzkoako eliztarrongan, Jesu Kristorenganako maitasun berritu bat, Elizarekin elkartasun biziago bat, konpromezu handiagoa bakearekin, itxaropen sendoagoa eta misiorako bultzada berria.

Jaunak bedeinka zaitzate la beti.

Donostian, 2026ko maiatzaren 1ean

✠ **Fernando Prado Ayuso**  
*Donostiako gotzaina*